

1. Enpresaren informazio ekonomikoa

MODULUAREN PROGRAMAZIOA ETA HELBURUAK

Ikastaro hau lanegun batean zehar garatuko dugu. Baina ondo etorriko zaigu egun hori baino lehenago informazioak gure ekintza sindikalean duen garrantziari buruz gogoeta egitea. Hau, guztion artean osatu behar dugun ikastaro bat izango da: bakoitzaren ekarpenek, eguneroko esperientziak, enpresan ematen diren informazio-prozesuei buruz dauzkagun ezagupenak, ... asko aberas ditzakete prestakuntza-material honen edukinak eta gure inguruan gertatzen ari dena ezagutzeko ahalbide berriak aurkitzen lagundu.

* Informazioak, erabakiak hartzeko prozesu guztietan izan ohi du garrantzia, baina batez ere ekonomia-alaketak etengabe ematen ari diren gaur bezalako uneetan izan ohi du.

* Jakin behar dugu zeintzuk diren enpresaren informazio ekonomikoa eskuratzeko guztiok dauzkagun tresnak, legalak bereziki.

* Enpresan bertan.

* Enpresatik kanpo ere eskura daiteke gure enpresari buruzko informazioa.

* Informazio hori noiz eskura daiteke?

* Informazio horri emango diogun erabilgarritasun praktikoa, zein da?

IKASTAROA PRESTATZEKO

Ikastaroa hasi aurretik gogoeta egin behar dugu enpresaren informazio-fluxu eta bideetara hurreratzeko dauzkagun ahalbideei buruz.

* Enpresen (guk lan egiten dugunaren eta gure eskualde, sektoreko, ... beste enpresa batzuen) auditoretza-informeak irakurtzea.

* Gizarte Segurantzaren, TC1 eta TC2ko kotizazioen dokumentuen egitura birbegiratzea.

* Erregistro publiko ezberdinen helbideak eskuratzea. (Jabetza-erregistroa, merkataritzako erregistroa, jabetza intelektualaren erregistroa, beste mota batzuetako erregistroak)

SINDIKAL HEZIKETA

1. EKONOMIKOA

ENPRESAREN INFORMAZIO EKONOMIKOA

Enpresak eman behar duen informazioa.

Langileen ordezkariak informazioa eskuratzeko duten eskubidea.

Kontrol-tresnak.

Enplegu-araupaketari (eta kausa objektiboengatiko iraispenei) dagozkien espedientei buruzko informazioa.

Informazioa eskuratzeko beste modu batzuk

Erregistro publikoetako informazio ekonomikoa.

Merkataritzako Erregistroa.

Higiezin Jabetza Erregistroa.

Auzibideratze batzuetako informazio ekonomikoa.

Porrotak eta ordainketa-etendurak.

Agerkarietako informazio ekonomikoa

I. Eranskina

KONTU AUDITORETZA

Hiztegia

Ariketen Gehigarria

Kontsultako Materialak

(Herrialdeetako egoitzetan)

Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bateratua.

Erantzunkizun Mugatuko Sozietateen Legea.

Merkataritzako Kodea.

Merkataritzako Erregistroaren Araudia

8 h.

SINDIKAL HEZKUNTZA

1. Enpresaren informazio ekonomikoa

Informazio egoki bat, dagokion unean izatea, ezinbesteko elementu bat da bidezko erabakiak hartzeko.

Batez ere, aldaketak abiadura burtzoragarrian ematen direlako gure gaurko munduan eta bereziki gertaera ekonomikoen arloan.

Beraz, gaur egungo eskuharmen sindikal batek, oinarri ideologiko sendoetan finkatuta egoteaz gain, aldaketa horien norabide eta trinkotasunari ahal den neurrian aurrea hartzeko behar diren tresnak behar ditu. Gu horrexetara bakarrik izango gara eskuharmen sindikalaren estrategiak diseinatzen dituzten subjektuak. Informazio onik gabe, sarri askotan gertaeren atzetik ibiltzeko ahalbidea besterik ez zaigu geratzen.

Eztabaida sindikalerako gaia:

ENPRESAREN INFORMAZIO EKONOMIKOA, ESKUHARMEN SINDIKALEKO TRESNA

- Informazioaren gizartea.
- Informazioa, aurrezaintzeko eskuharmen sindikalaren tresna denez.

ENPRESAK EMAN BEHAR DUEN INFORMAZIOA

Pertsonalaren ordezkariak eta Enpresa-komiteak lan-eskubide mordo bat dute (Lan Legerian bildurik daude) eta horietako bat, **enpresaren informazio ekonomikoa hartzekoa** da. Langileen Estatutua (64.1.1 eta 64.1.3 artikulak).

Langileen ordezkariak informazioa eskuratzeko duten eskubidea.

Langileen Estatutuak eskumen-mordo bat ematen die enpresako langileen (hau da: Ordezkarik Sindikal, Pertsonalaren Ordezkarik eta Enpresa Komiteko kideen) ordezkari-tza-organoei (1); eta horien artean hurrengo hau: enpresaren ekonomia-aldagai nagusiei buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea.

ORDEZKARIEK ETA KOMITEEK HURRENGO ESKUBIDE HAUEK DITUZTE:

Hurrengo hauei buruzko informazioa urtelaurdenka hartzekoa:

- * Enpresaren SEKTORE EKONOMIKOAREN BILAKAERA.
- * Ekoizpenaren eta salmenten egoera eta programak.
- * (Enpresak hurrean edukiko duen) enpleguaren bilakaera (ikus 1. eranskina eta lehenengo ariketa)

Hurrengo hauek ezagutzekoa:

- * BALANTZEA
- * EMAITZEN KONTUA
- * TXOSTENA
- * Enpresak akzio edo partaidetzen bidez eraturiko sozietatearen forma baldin badu, bazkideei ezagutarazten zaizkien gainerako dokumentu guztiak eta hauen baldintza berdinetan. (2) (ikus 1. eranskina)

(1) Beraz, hau legeriak, lan-prozedurak eta sozialeko auzitegiek babesturiko eskubide bat da.

1. Enpresaren informazio ekonomikoa

Lan-legeriak kasu batean ere ez du zehazten enpresak informazioa emateko erabili behar duen forma. Legejakintzaren interpretazioak ere ez du kontuan hartzen enpresariak idatziz eman behar duenik, ez dokumentu guzti horien kopiarik erraztu behar duenik; bakarrik esaten du ordezkari sindikalen eskura enpresako bulegoetan jarri behar dituela denbora-mugapenik gabe. Beraz, enpresaren informazio ekonomiko hori idatziz eta egitura homogenoarekin (hau da: aldi ezberdinetako informazioak erkatzeko moduan) eta teknikari sindikalekin batera aztertzeko eran emateko eskakizuna, gure eskuharmen sindikaleko beste elementu bat izango da.

Kontrol-tresnak

* **Langileen Estatutuko 64.1.9 artikulua**, enpresaren soldata-egiturari buruz daukagun ezagupena hobetzeko tresna bat da.

Langileen Estatutuak esaten du Enpresa Komitearen lana apartatu honetan, hurrengo hau dela "**... lan, Gizarte Segurantzza eta enplegu-arloan indarrean dauden arauak betetzen diren zaintzea**, eta halaber enpresan indarrean dauden gainerako hitzarmen, baldintza eta erabilerak ere, legeko egintzak formulatuta, kasua denean, enpresariaren aurrean eta erakunde edo auzitegiko eskudunaren aurrean ...".

Artikulu honek ez du ezartzen langileen ordezkariak lan hau burutzeko dauzkaten forma, ez tresnak.

(2) Sozietateko Administrazio Kontseiluak balantzeari, galdu/irabazien kontua eta txostena akzionisten eskura egoitzan jarriko dituzte Batzar Nagusia ospatu baino 15 egun lehenago (1989/1564 E.D.an onarturiko Sozietate Anonimoen Legea)

-> Enpresak erraztu behar duen informazio ekonomikoa

Gure ustez kontrol-lan hau burutzeko funtsezko tresna, **enpresak Gizarte Segurantzari egiten dion kotizazioaren dokumentuen jarraipena** egitea da.

Langile bakoitzak egiten dituen **ordu extra, kontratu-mota eta abarri buruzko informazioa, TC2 dokumentutik** abiatuta eskura dezakegu. Guri interesatzen zaigunari, hau da: enpresaren informazio ekonomikoa lortzeari dagokionez, TC1 eta TC2, enpresaren soldata-egiturari buruz hurbilpen bat eman diezaguketen tresnak dira (beraz, kontabilitate-dokumentu batean ere agertzen ez den informazioa ematen duten tresnak hain zuzen).

Eta diogu hurbilpen bat dela, dokumentu horietan ez direlako agertzen kotizazio-oinarriak baino eta hauek goiko mugak dituzte (goiko muga horiek gainditzen dituzten kopuruak ez dira ezagutzen) eta langileei ematen zaizkien ordainketa batzuk ere ez direlako hartzen soldata-ordainketatzat (ez dira soldata edo lansari eta, beraz, ez daude kotizazioari lotuta). (ikus 2. ariketa).

EZTABAIDA GAIA:

INFORMAZIOA HARTZEKO ESKUBIDEA BETETZEN DELA BERMATZEKO ENPRESAN BURUTU BEHAREKO ESKUHARMEN SINDIKALA.

- Estrategia sindikalak: idatzizko informazio homogenoa, osoa eta erkagarria eskatzeko ahalbidea ukan dezagun eta gainera, sindikatuko ekintza sindikaleko taldeekin batera aztertu beharra dagoenean, baita enpresatik ateratzekoa ere. Eta enpresaren informazio ekonomikoak auditoretza eginik duenean, auditoreen informe osoa lortzeko ere.

Enplegu-araueketaren (eta arrazoi objektiboengatiko irazpenen) espedienteei buruzko informazioa

Zailtasun ekonomiko, teknologiko edo antzekoak jasaten ari diren enpresen kasuetarako lan-legeriak suposamendu berezi mordo bat arautzen du.

1. Enpresaren informazio ekonomikoa

Suposamendu horiek, krisi edo enplegu-araupeketaren espedienteak dira. Prozedura hauetan, langileen ordezkariak, ados ez daudenean, beren informea egin dezakete. Berme osoaz egin ahal izateko, legeriak kontabilitate, fiskal eta abarreko dokumentu mordo bat ematera behartzen ditu enpresak.

Enplegu-araupeketaren espedienteetan enpresak ekarri behar duen dokumentazioa zein den Langileen oraingo Estatutuak ez du zehazten; baina bai egiten du oraindik indarrean dagoen Lan Baldintzen Funtsezko Aldaketei eta Lan Harremanen Etendura eta Iraungipenari buruzko apirilaren 14ko 1980/696 Errege Dekretuak.

Kontratu hausketa daramaten enplegu-araupeketaren espedienteetan, enpresak, beste gauza batzuen artean, hurrengo hauek aurkeztu behar ditu:

* Azken hiru urteetako **balantzeak eta galdu/irabazien kontuak**; azken urteetako **SOZietATEEN GAINeko ZERGAREN ondorioetarako egindako aitorpena eta enpresaren finantza, produkzio, merkataritza eta antolaketa-alderdiei buruzko informea.**

* **ZINPEKO KONTU-AZTERLARI**Aren informea (ikus 1. eranskina) (4)

(3) Informazio ekonomikoa eskuratzeko ez dugu itxaron behar inoiz ere enplegu-araupeketaren espediente-egoera gertatu arte.

(4) Espedientea 50 langile baino gutxiagoko enpresena denean edo azaltzen den arrazoia teknologikoa denean, ez da beharrezkoa. Sozietateen gaineko zergaren aitorpenak ere ez.

INFORMAZIOA ESKURATZEKO BESTE ERA BATZUK

Lan-legeriak bermatzen dizkigun eskubideez gain, **gainerako gizartearen eskura dauden baliabideak ere erabili behar ditugu** geure lan-eskubideen aplikazioan enpresako zuzendaritzatik eskuratzen dugun informazio-maila osatu eta hobetzeko.

Izango ditugun baliabideak era askotakoak dira: **eguneroko prentsako ekonomia-orrialdeak, argitalpen espezializatuak, beste enpresa batzuetako langileekiko harremanak, ...** eta agian garrantzitsuenetariko bat: **Erregistro Publiko ezberdinak erabiltzea.**

ERREGISTRO PUBLIKOETAKO INFORMAZIO EKONOMIKOA

Erregistro Publikoak (Merkataritzako Erregistroa, Hiri Jabetzaren Erregistroa, Jabetza Intelektualaren Erregistroa, ...), **sarbide libreko bulego publikoak dira**; hauen eginkizuna, izan ere, guztion eskubideak zaintzea da eskatzen duten guztien eskuetan jarrita bulego horietan dagoen informazioa, hau da, egintza eta kontratu batzuk publikoki jasota geratzen direnez, horietan agertzen den informazioa alegia. Erregistro hauetariko bakoitzak helburu jakin bat du; beretan jartzen diren dokumentuak izaera ezberdinetakoak dira eta, beraz, horietako batzuetan aurki dezakegun informazioa beste batzuetan aurki dezakeguna baino garrantzitsuagoa da gure lan sindikalerako.

EZTABAIDA GAIA:

ENPRESAREN INFORMAZIO EKONOMIKOA GEURE KONTURA ESKURATZEKO BESTE BALIABIDE BATZUK, ZEINTZUK IZAN DAITEZKE?

Garrantzitsuenak, hurrengo hauek dira:

*** Merkataritzako Erregistroa.**

Hasteko, herrialde bakoitzean gutxienez erregistro bat dago; hor inskribatzea, borondatezkoa da banakako enpresarientzat eta derrigorrezkoa merkataritzako sozietateentzat. Merkataritzako Erregistroan enpresek inskribatu behar dituzten egintzak era askotakoak dira eta aurrerantzean beste alderdi batzuk ukituko ditugun arren, Urteko Kontuak hemen gorde behar horrekin atal berezi bat egin nahi dugu oraintxe.

Enpresen URTEKO KONTUAK

Estatuko kontabilitate eta merkataritzako arautegia Elkartean arlo hauetan zeuden gidalerroetara egokitze laurogeita hamarreko harmarkadaren hasieran onartu zen merkataritzako legeria berriak, beste gauza batzuen artean gardentasun-betebehar berriak eskatzen zizkien enpresei. Guri dagokigunez, azpimarra dezakegu **1990etik hasita Sozietateek (ez ordea banakako enpresariak) urteko kontuak Merkataritzako Erregistroan gordetzeko betebeharra dutela.**

Betebehar hau ez betetzeak (5) Sozietateei suposatzen die:

Isun bat. 200.000 pezetatik 10 milioira artekoa, enpresaren sarreraren arabera eta 1.000 milioi pezetatik gorako sarrerak dituzten enpresei emandako zehapena 50 milioi pezetara artekoa izan daiteke.

1995eko urteko kontuetatik aurrera, betebehar hau betetzen ez duten sozietateei **ERREGISTRO ITXITURA** egingo zaie.

Urteko kontuak Merkataritzako Erregistroan jartzen dituzten sozietate batzuek **gainera betebehar gehigarri bat dute.**

(5) Zehapen hauek Merkataritzako Erregistroak berak ezarri behar ditu. Honek, 1996aren amaieran, oraindik isun bat ere ez du ezarri urteko kontuak erregistratzeko betebeharra ez betetzearren. Nahiz eta kalkulatzeko den gaur egun oraindik enpresen %25ak ez duela betetzen legezko betebehar hau.

-> Enpresak erraztu behar duen informazio ekonomikoa

Urteko kontu horien auditoretza egin behar dute eta balantzea, emaitza-kontua eta txostenarekin batera auditoreek egindako KONTU AUDITORETZAREN informea ere gorde behar dute. Profesionari lotura gabe hauen lanak auditoretza egin zaion enpresaren kontabilitate-erregistroen fidagarritasunari buruz bermatasun handiagoa emateko balio du. (Ikus Kontu Auditoretzari buruzko eranskina).

Kontu-gordailaketa hau ez da Merkataritza Erregistroan dagoen enpresari buruzko informazio-iturri bakarra. Ikus dezagun zeintzuk diren merkataritzako erregistroan inskribatzen diren beste egintza batzuk.

- * Enpresaren helbidea.
- * Sozietatearen forma juridikoa (S.A., S.M., S.A.L. den).
- * Enpresaren Administrazio Kontseiluko kideak (6).
- * Sozietatearen kapitala (eta hau osorik ordaindurik duen ala ez).
- * Sozietatearen estatutuak eta egindako aldaketak.
- * Enpresak ahaldundurik daudelako, kontratuak egiteko eta banku-kontuak irekitzeko ahalmena duten pertsonak.
- * Enpresa likidazio edo antzeko prozesuan dagoenentz.
- * Enpresarien liburuak legeztatzen dira.

URTEKO KONTUAK, AUDITORETZA ETA ERREGISTROA EGITEKO EGUTEGIA.

Administrazio Kontseiluak urteko kontuak onartzeko.

Gehien ere 3 hilabete.

3.31n

7.31n

(Normalean 12.31): Ekitaldiaren itxiera

4.30a: Auditoreak bere informea egiteko. **Gutxienez hilabete bat**

6.30a: Akziodunek Urteko Kontuak onartzeko eperik luzeena

URTEKO KONTUEN PRESTAKETA

7 hilabete: urteko kontuak merkataritzako erregistroan gordetzeko eperik luzeena

Higiezinaren Jabetza Erregistroa

Higiezin Jabetza Erregistroa ere bulego publikoa da; baina kasu honetan higiezin jabetzan gertatzen diren aldaketei publizitatea emateko balio du. Beraz, beste gauza batzuen artean hemen bil daitezke:

- * Ondasun higiezin salerosketak, eragiketan parte hartu duten subjektuak, kopurua, ...

- * Ondasun higiezin dituzten hipotekak eta bahiturak, ...

Jabetza-erregistroak zehazki informazio ekonomikoa deitzen zaiona ematen ez badigu ere, enpresaren higiezinekin gertatzen denari edo enpresak jasan ditzakeen arazoei buruzko analisisia "argi gorri" bat, urteko kontuak baino adierazgarri azkarrago bat alegia, izan daiteke (kontuan izan aurtengo ekitaldiko urteko kontuak datorren urteko bigarren erdian eskuratuko ditugula).

(6) Enpresa Komiteko kideek jabetzaren ordezkartzan zuzentzen dute enpresa. Banaketa ezagutzen ez dugun S.A.ren kasuetan, kapitalaren jabetzak, Administrazio Kontseiluko kideen analisiak, ..., lorratz batzuk eman diezazkigu hala enpresa-talde baten existentziari buruz nola enpresa batzuek beste batzuegan dituzten menderaketa-harremanei buruz eta enpresan dagoen botere-egiturari buruz.

1. Enpresaren informazio ekonomikoa

Herrialde bakoitzean jabetza-erregistroko bulego bat baino gehiago egon daiteke. (Bulego hauek eskualde-izaerarekin banaturik egon ohi dira).

Auzibideratze batzuetako informazio ekonomikoa. Porrotak eta ordainketa-etendurak.

Enpresak zailtasun ekonomiko garrantzitsuak pasatzen egon daitezke. Kasu hauetariko batzuetarako merkataritzako legeek lege-formula mordo bat daukate jarriarik. Adibide gisa, Ordainketa Etenduraren kasuaz ariko gara.

Enpresak **ordainketa-etenduraren** adierazpena eska diezaioke bere egoitzako Lehen Auzialdiko Epaileari. Egoera honetan gaudela jakin dezakegu edo enpresak berak jainarazi digulako edo epaileak tramitatzeko onartzen duenean **publizitatea eman behar zaiolako, E.B.O.ren, herrialdeko Boletin Ofizialaren eta herriko egunkari baten bidez**. Mota honetako prozesuak aztertzea ez da lan honen helburua, baina, hala ere, gustatuko litzaiguke aipatzea enpresan gertatzen ari dena hobeto ezagutzeko guztiz interesgarri diren izaera ekonomikoko dokumentu mordo bat jarri behar duela enpresak epailearen eta ordainketa-etendurako organismoen eskuetan.

Beste dokumentu batzuen artean enpresak hauek aurkeztu behar dizkio epaileari:

- * Aktiboaren eta pasiboaren balantze xehetua edo, behintzat, Aktiboaren eta Pasiboaren osaketa zehatz-mehatz eskabidearen datan isladatzen duen egoeraren errealitatea.

- * Bere jabetzako Ondasun Higiezinaren zerrenda.

- * Hartzekodun guztien zerrenda. Kopuru handienetik txikienera eta epemugen dataren arabera ordenatuta. Salbuespen gisa, hartzekodunen kopurua milatik gorakoa denean, aski da jakinaraztea hartzekodunen gutxi gora beherako kopurua, ezagutuen izena eta kredituen zenbateko globala. Eta halaber finantza-egoera anomalo horretara eraman duten kausak eta obligazioei aurre egiteko dituen baliabideak azaltzen dituen txostena.

-> Informazioa eskuratzeko beste modu batzuk.

* Hitzarmen-proposamena.

Krisian dagoen enpresa batean garrantzi izugarria daukan informazio guzti honen jabe egin nahi baldin badugu, kasu honetan **harremanetan jarri behar gara lehenengo dagokion epailearekin eta gero kontu-hartzaileekin** (hau da, epaileak prozedura hauetan kontabilitate-liburuak ikuskatzeko, enpresaren eragiketa guztietan esku hartzeko, zordunak aurkeztu duen Balantzeko aktiboaren eta pasiboaren zintzotasunari buruz irizpena emateko eta behin betiko balantzea eta hartzekodunen zerrenda aurkezteko izan ohi dituen laguntzaileekin alegia).

Onena izango litzateke arlo honetan burutzen den lan sindikalak mota honetako egoerei aurrea hartzen laguntzea. Hau, egia esan, oso zaila da; baina, hala ere, arlo honetan alde aurretik egin den lanak beti balioko digu prozedura honetan agertzen den informazioa osatzeko eta ordainketa-etenduraren egoera hori sortu duten arrazoiei buruzko argibideak emateko.

Agerkarietako informazio ekonomikoa

Ondoren, guk lan egiten dugun enpresek daukaten finantza eta ekonomia-egoerari buruzko informazio-iturri izan daitezkeen agerkari-mordo baten berri emango dizuegu. **Hauetako batzuk geure herrialde-egoitzetan daude erabiltzeko moduan eta gainerakoak biblioteca publiko ezberdinetan aurki ditzakegu:**

- * Eguneroko prentsa berezitua: Cinco Días, Expansión, La Gaceta de los Negocios, ...
- * Aldizkariak: Información, Información Comercial Española, ...
- * Sektoreetako Agerkariak: GATZA (SALena)
- * Estatistika ofizialak: Industria Ekoizpenaren Indizea (Eustat), Industria Prezioen Indizea eta Industria Jardueraren Indizea (I.N.E.)
- * Enpresa Katalogoak: Eusko Autonomi Elkarteko Industria Katalogoa (Eusko Jaurlaritzak argitaratua). Katalogoa (Merkatariza Ganbarek argitaratua).

1. Enpresaren informazio ekonomikoa

1. ERANSKINA

KONTU AUDITORETZA:

*** Zer da Kontu Auditoretzan aztertzen dena?** Enpresak urteko kontuak prestatzeko behar duen ekonomia eta finantza-informazioa.

*** Nork egiten du auditoretza?** Auditoretza **profesionari berezitu eta enpresarekin loturarik gabeek** (7) egiten dute; hauek azterketa-teknika jakin batzuk erabiltzen dituzte eta Auditoretzako Arau Teknikoak deritzenei loturik dauden aukera-proba mordo bat burutzen dute.

*** Zein da kontu-auditoretzaren helburua?** Auditoreen lanaren helburua, hurrengo zer hauei buruz bere iritzia ematen duen informe bat egitea da, hots: urteko kontuek beren alderdi esanguratsuetan (erlatiboki garrantzitsuenetan beraz) enpresaren irudi fidela adierazten duten ala ez eta interpretazio egoki bat egiteko beharrezko eta bidezko den informazio guztia biltzen duten ala ez, Gehienek Onarturiko Kontabilitate Arau eta Printzipioen arabera eta aurreko ekitaldian aplikaturiko irizpideekin uniformetasuna gorderik (adibidez, amortizazioaren zuzkidurari buruzko irizpideak ez dira aldatzen urte batetik bestera).

*** Urteko kontuen auditoretza egitera Legez beharturik dauden enpresak, zeintzuk dira?** Hurrengo zertzeladetariko bat burutzen duten enpresak:

- > **Tituluak** Merkataritzako **Burtsa** Ofizialetan **kotizatzea**.
- > **Obligazioak** **Eskaintza Publikoan jaulkitzea**.
- > **Finantza-bitartekaritza** aritzea.
- > **Aseguru Pribatuaren Legeak araututako jardueretan** aritzea.
- > **Dirulaguntzak eta laguntzak hartzea** edo Estatuari zerbitzuak prestatu, obrak egin edo ondasunak hornitzea.
- > Enpresaren forma juridikoa (SA, SM, SAL, Kooperatiba, ...) eta bere jarduera alde batera utzita, bere dimentsio ekonomikoaren arabera. Urteko kontuen auditoretza egin behar dute **ixten den ekitaldiaren aurreko bi urteetako batean bederen hurrengo zertzeladetariko 2 betetzen dituzten enpresek:**

Aktibo osoa > 300 milioi pezeta
Sarrera garbiak > 600 milioi pezeta
Batezbesteko langile kopurua > 50

*** Nolakoak izan daitezke auditoretzaren informeak?.** Kontu auditoretzako informeak, mota hauetakoak izan daitezke:

-> Garbiak edo salbuespenik gabeak: Hau da, Auditoreak beharrezkotzat jo dituen prozedura guztiak burutu ahal izan ditu eta pozik geratu da aztertu dituen gai guztiekin. Honek gainera esan nahi du urteko kontuek enpresak daukan ondarea erakusten dutela eta era berean finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dutela bere alderdi garrantzitsuenetan eta urteko kontu horietan egokiro interpretatu eta ulertzeko behar diren elementu guztiak agertzen direla.

(7) Auditorearen loturarik ezak bermatu nahi du bere lana aurretik ezarritako arauen arabera egingo dela eta informea lantzerakoan ematen duen irizpen profesionala objektiboa izango dela. Auditoreek, lehen, enpresa batentzat bederatzi urtetan lan egiten bazuten, ezin zezaketen enpresa harentzat lanik egin gutxienez beste hurrengo hiru urteetan. Objektibotasunaren berme hau duela gutxi desagertu da, auditoretza-sinadura handi batzuen objektibotasuna zalantzan jarri duten eskandaluak eman diren unean bertan hain zuzen. Esaterako Banestoko auditoreena, Espainiako Bankuaren eskuharmena ematen denean.

-> **Salbuespenekin:** Auditoreak ondoriotzat hurrengo zerbait ateratzen duenean: auditorearen lanari mugapenen bat jarri zaiola, kontuetan akatsen bat agertu dela edo kontabilitate-araategia bete ez dela, ziurgabetasunen bat ageri dela atalen batean, aurreko ekitaldian aplikatu diren printzipioetatik ezberdinak diren printzipioak aplikatu direla, beraz, aplikaturiko printzipioetan aldaketak egon direla aurreko ekitaldikoekiko, ... Kasu hauetan informe garbietan agertzen ez diren tarteko esaldi batzuk jarriko dira; tarteko esaldi hauetan auditoreak salbuespena desbribatuko du eta esaldi hau jarriko "hurrengo honengatik izan ezik: ..." eta hemen bere iritzia jarriko du.

*** Zenbat motatako iritziak aurki ditzakegu informean?** Kontu-auditoretzako informean hiru iritzi-mota egon ohi dira:

-> **Aldekoa:** Auditorearen informean salbuespenak egon daitezkeen arren, enpresaren irudi fidelari ukitzeko besteko garrantziarik ez dutenak dira.

"Gure ustez Urteko Kontuek enpresaren irudi fidela adierazten dute bere alderdi esanguratsuetan, honetan izan ezik ..."

-> **Negatiboa edo kontrakoa:** Auditoreak aurkitu eta informean jarri dituen salbuespenak hain garrantzitsuak dira non Urteko Kontuek ez duten adierazten enpresaren irudi fidelik.

"Gure ustez aurreko salbuespenen ondorioek daukaten garrantzia ikusita, ... Urteko Kontuek ez dute adierazten ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidelik ...".

-> **Iritzirik gabea:** Auditoreak ez du Urteko Kontuei buruz oro har bere iritzirik ematen. Ezin izan dituelako burutu beharrezko diren auditoretza-proba guztiak, edo garrantzi handiko ziurgabetasunak, auditoreak zenbatekotu ezin dituenak eta urteko kontuetako kapitulu garrantzitsuetan eragina dutenak, daudelako.

"Gure auditoretzaren helmenari jarri zaion mugapena, ondoren deskribatzen dugun hau alegia, garrantzi handikoa denez, ezin dugu iritzirik eman ekitaldiko urteko kontuei buruz ..."

AUDITORETZETAN AURKITUTAKO SALBUESPENAK

Kopuru-salbuespen ZEHAZTUA

Kopuru-salbuespen ZEHAZTUGABEA

Informe GARBIA

SALBUESPENDUN informea, baina ALDEKO IRITZIA duena

KONTRAKO IRITZIA duen informea IRITZIRIK GABEKO informea

BERBATEGIA

EKONOMIA SEKTOREAREN BILAKAERA

Ekonomia-sektorea aipatzen dugunean, antzeko produktuak ekoizten dituzten enpresa-multzoari buruz hitz egiten ari gara. Antzekoak ikuspuntu honetatik dira, hots: kontsumitzaileak produktu horien ordeztzeko antzeko ahetasun-maila ematen dioten sektore bereko beste enpresa batzuetako produktuak erosteko ahalbidea duelako.

Sektore baten bilakaera azter daiteke edo **termino kualitatiboetan** (zifrarik eman gabe, adibidez: "sektorea hazten ari da, atzerantza doa, ...". Sektoreari buruz informazioa emateko modu hau gutxi interesatzen zaigu) edo **termino kuantitatiboetan** (sektoreko aldagai garrantzitsuenetako zifren bilakaera ematen denean, hau da: enpleguarena, salmentena, inportazio eta esportazioena, ekoizpen-ekipoetako inbertsioena, enpresen fusio eta erosketena,... Informazio-mota hau lortzea oso zaila da, baina, hala ere, haxe da lan egiten dugun enpresaren martxa nolakoa den ezagutzeko interesgarriena).

Aldagai baten gehikuntza era honetan kalkulatzeko da:

Kopurua

1 ariketa

Kopurua

0 ariketa

Kopurua

0 ariketa

URTEKO KONTUAK

Merkataritzako Kodeak berak esaten du zeintzuk diren enpresaren administratzaileek urtero idatzi behar dituzten urteko kontuak: Egoera Balantzeta, Galdu/irabazien kontua eta Txostena.

BALANTZEA

Balantzeta, enpresak titular bezala dituen ondasun eta eskubideen (= AKTIBOAREN) inbentarioa da; eta, halaber, egin dituen zor guztiena (= PASIBOARENA) ere. Modu jakin batean ordenatuta agertzen da, enpresak une jakin batean daukan ekonomia eta finantza egoeraren berri kontsultatzen duten guztiei emateko.

EMAITZA KONTUA

Emaizta kontuak, enpresak epealdi jakin batean izan duen ekonomia-jardueratik sortu den emaitzaren eta bere kausen berri ematen du.

$$\text{EMAITZA} = \text{SARRERAK} - \text{GASTUAK}$$

TXOSTENA.

Txostena, urteko kontuen gainerakoa osatu, zabaldu eta iruzkintzea helburutzat daukan kontabilitate-dokumentua da. Enpresak derrigorrez bete behar dituen atal-mordo bat dauka.

Atal hauen artean hauek azpimarra daitezke: **finantzaketa-laukia**, hementxe deskribatzen baitira enpresak ekitaldian zehar eskuratu dituen finantza-baliabideak eta beren jatorri ezberdinak eta, halaber, beren aplikazioa edo erabilera ere; **taldeko enpresetan edo elkartuetan dituen partaidetzak, batezbesteko langile-kopurua, Administrazio Kontseiluko kideek hartzen dituzten soldatak, dietak eta beste edozein motatako ordainsariak**, ... Administratzaileek datu hauetariko bat betetzen ez badute, hori salbuespen-kausa da kontu-auditoreen informean.

ERREGISTRO ITXIERA

1996ko abuztuaren 1etik indarrean dagoen Merkataritzako Erregistroaren Araudi berriak zehapen zorrotz berri bat ezartzen du: Merkataritzako Erregistroko erregistratzaileek urteko kontuak gordetzeko eginbeharra betetzen ez duten sozietateen erregistro-orria beteko dutela alegia; honek esan nahi du **enpresaren administrazio-blokeoa** egitez ematen dela, ezin dielako baliozkotasunik eman administrazioaren aurrean ez hitzarmen sozialei, ez ahaldunen izendapenari, ez kapitalaren handitzei, ez higiezin salerosketei, ...

URTEKO KONTUEN AUDITORETZA, edo KANPO auditoretza

Uztailaren 12ko 88/19 Auditoretza Legearen arabera, Kontu Auditoretzatzat ulertu behar da kontabilitate-dokumentuen berrikusketa eta egiaztapena, baldin bere helburua hirugarrenengan ondorioak dituen informe baten jaulkipena bada (Ikus honen azalpena kontu-auditoretzari buruzko eranskinean).

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Sozietateen gaineko zerga enpresen (pertsonei juridikoen) errenta-aitorpenaren antzeko zerbait da. Beraz, zerga honi buruzko aitorpenen fidagarritasun-maila, pertsona fisikoen errenta-aitorpenek duten antzekoa da.

ZINPEKO KONTU AZTERLARIA

Zinpeko kontu-azterlariak, kontu-auditoretza egiteko gaiturik dauden profesionariak biltzen dituzten hiru herri-korporazioetako bat dira; hiru korporazio horiek hauek dira: Ekonomilari Kontu Auditoreen Erregistroa (E.A.E.), Zinpeko Kontu Auditore Azterlarien Institutua (Z.A.A.I.) eta Merkataritza eta Enpresetako Titularren Elkargo Ofizialetako Kontseilu Nagusia (R.E.G.A.). Beraz, uste dugu Langileen Estatutua "kontuen auditoreari" buruz hitz egiten ari dela.

ARIKETAK

1. ARIKETA

	1995	1996	
Salmentak	5.654 milioi	6.324 milioi	
Enplegua	65 langile	33 langile	

Galdera:

Kalkula ezazu 1996/65eko gehikuntza, salmenta eta enpleguaren aldagaiaetan.

2. ARIKETA

Ariketa hau ez da besterik errealitatean gertatzen denaren sinplifikazio bat baino. Adibide erraz honen bidez, iturri ezberdinetako informazioa aldi berean landu eta kontrastatzeko dauden ahalbideak erakutsi nahi ditugu.

1996ko 1. hilabetea		tc2	
Izen/deiturak	Kontratu-mota	KOTIZAZIO OINARRIAK	
	Kotizazio-Kontingentzia taldea	Lan-istripuak eta L.E.	Ordu
extrak	komunak	desenplegua FOGASA ...	

Fernandez, Jose
Andueza, Iker
Aranagoitia, Sabin
Fernandez, Luis
Andrinua, Ander
Arangoitia, Maria Luisa
Montoia, Txemari
Simeone, Txolo
Gomez, Andoni
Gomez, Ander
Gomez Marta

1. Enpresaren informazio ekonomikoa

Enpresaren Kontabilitate-txostenean lor dezakegu halaber 1996rako gastuei buruzko hurrengo informazioa ere:

- * Soldatak eta lansariak: 56.557.872 pta.
- * Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak: 9.892.344 pta (ugazabaren kuota)
- * SOLDATA GASTUAK GUZTIRA: 66.570.226 pta.

Kontuan izan dezagun:

Enpresaren kontabilitatean, soldata eta lansarien kontzeptuan hain zuzen, langileen kargura Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak ere sartzen direla. Enpresako langile guztien soldata-egitura erreala zehazten digun dokumenturik ez daukagu.

Suposatzen da:

Enpresak 12 lanordain berdin dituela.

Lansaritik ezberdin den ordainsaririk ez dagoela.

Ordu extrarik ez dagoela.

Galderak:

- 1.- Zenbat langile dago gehieneko mugatik gora irabazten?
- 2.- Zein izan da 1995ean, langileen langile-kuotaren kopurua?
- 3.- Kontabilitateko soldata eta lansarien partidari ken iezaziozu langile-kuotaren kalkulua.
- 4.- Biderka ezazu hamabiz kontingentzia komunengatiko kotizazio-oinarrien guztizkoa.
- 5.- Erka ezazu "3"koaren emaitza "4"koarekin eta eman itzazu kendura horren arrazoiak.

ARIKETAK

TESTAK

1.- Koipetsu, S.A. enpresak pabilioiak saldu zituen 1995ko otsailean eta horren berri ez zien eman langileei. Hauek urtero joaten dira Merkataritzako Erregistrora urteko kontuak eskatzera eta enpresaren egoerari buruz ez dute egiten inolako beste ikerketa-motarik. Seinala ezazu gurutze batekin hurrengo zein datan izango duten eragiketa horren berri.

- ☐ 1995eko martxoan
- ☐ 1995eko irailean
- ☐ 1996ko ekainean
- ☐ 1996ko irailean

2.- Seinala ezazu hurrengo jarduera sindikaletako zeinek lagunduko dien Koipetsuko langileen ordezkariari 1995ean zehar egindako pabilioien salmenta-eragiketa hori aurkitzen.

- ☐ a) Estatutuak eta hauetan egon diren aldaketak Merkataritzako Erregistroan eskatzeak.
- ☐ b) Ekonomiari buruzko prentsa egunero irakurtzeak.
- ☐ c) Merkataritzako Erregistrora aldizka joateak.
- ☐ d) Sektoreko enpresetako LABeko ordezkariekin sektoreko bilerak antolatzeak.

3.- Zaratatsu, S.A.ko langileak Merkataritzako Erregistrora joan dira eta aurkitu dute Zaratatsu enpresak ez dituela gordetzen urteko kontuak Jabetza-erregistroan. Lan-ikuskariarengana joatea erabaki dute beren eskubideak berma ditzan eskatzera. Esaizu jarduera hau zuzena ala okerra den.

- ☐ a) Zuzena
- ☐ b) Okerra

4.- 1996ko irailean Koipetsu, S.A.ko langileak konturatu dira auditorearen informea txiki-txikia dela (ez dago salbuespenik) eta, gainera, aldeko iritzia ematen diela Urteko Kontuei. Seinala ezazu hurrengo baieztapenetatik zein den zuzena:

- ☐ a) Informea laburra da auditoreak lan gutxi egin duelako.
- ☐ b) Auditoreak uste du aktiboen salmenta Koipetsuren onerako dela.
- ☐ c) Aurreko biak dira zuzenak
- ☐ d) Aurreko bata ere ez da zuzena.

1. Enpresaren informazio ekonomikoa

5.- Auditoretzako informean auditoreek esaten dute ez doazela iritzirik ematen Urteko Kontuek enpresaren ondarearen irudi fidela itxuratzen duten ala ez galderari buruz (iritzia ukatzen dute). Seinala ezazu zein den ukapen honen arrazoia:

- { } a) Enpresak auditoreei ez die ordaintzen egiten ari diren lana.
- { } b) Auditoreek garrantzi handikoak ez diren akatsak eta kontabilitateko araudi-urratzeak aurkitu dituzte kontabilitatean.
- { } c) Auditoreek akats, urratze edo salbuespen garrantzitsuak aurkitu dituzte, baina beren kopurua edo amaiera ezin dute argi eta garbi zehaztu.

6.- Koipetsu, S.A.k 1995ean eta 1996an izandako hurrengo zifrak ikusita, esaizu ea bere Urteko Kontuen auditoretza egin beharrik izango duen 1996an.

	1995	1996
AKTIBO OSOA	350 milioi	25 milioi
SARRERAK	675 milioi	525 milioi
BATEZBESTEKO LANGILE-KOPURUA	45	45

- { } a) 1995ean eginbeharra zeukan, baina 1996an ez dauka.
- { } b) Urte batean ez bestean ez du eginbeharrik.
- { } c) Bi urteetan izan du eginbeharra.

ARIKETAK

SOLUZIOAK:

1. Ariketa:

Salmentak: %11,85eko gehikuntza. Enplegua %49,23ko murrizketa.

2. Ariketa:

1.- 1996an hiru langilek irabazten dute gehieneko kotizazio-oinarritik gora edo berdin: **Jose Fernandez, Sabin Aranagoitia eta Luis Fernandez.**

KOTIZAZIO TALDEA

GEHINEKO OINARRIAK

1etik 4ra	374.880
5etik 7ra	279.390
8tik 10era	9.313 pta/egunean

2.- Langileen langile-kuotaren kopurua.
Kotizazio-oinarrien hilabeteko batura: 2.676.500 pta.
Batura x 12 hilabete: 32.118.000

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO MOTAK

Kontzeptuak

Langileak %

kontingentzia komunak	4,7
Langabezia	1,6
FOGASA	-
Lanbide-heziketa	0,1
GUZTIRA	6,4

Hamabi hilabeteetako guztizkoa x %6,4: 2.055.552 pta.

3.- Soldatak eta Lansariak: 56.677.872 pta.
Langile-kuota: 2.055.552 pta.

Kendura: 54.622.320 pta; langileek hauxe kobratuko dute errealitatean, Gizarte Segurantzako kotizazioa kenduta, soldata eta lansarietan.

4.- Hilabeteko kotizazio-oinarrien batura: 2.676.500 pta.
Batura x 12 hilabete: 32.118.000 pta.

5.- 3 - 4ren arteko kendura = 22.504.320 pta.
Kendura hau, kotizazio-mugetatik gora dauden hiru langileek irabazten duten kopurua da. Batezbesteko irabaziaren kalkulua ere egin daiteke:
Lorturiko kopuru hori zatitu behar dugu hiru langile eta hamabi hilabeteren artean:
 $22.504.320 / (3 \times 12) = 625.120$ pta.

Bat ditzagun 625.120 pezeta horiek eta kotizazio-mugaren 374.880 pezetak = 1.000.000 pezeta; beraz, muga gainditzen duten hiru langile horiek, batezbeste, 1.000.000 irabazten ari dira.

TESTAK:

- 1.- 1996ko iraila.
- 2.- c)
- 3.- b)
- 4.- d)
- 5.- c)
- 6.- c)

1.- ENPRESAREN INFORMAZIO EKONOMIKOA

*** 2 ARGAZKIA**

- Erreferentzia: "Ugarriza"
- Argazki-oina: Segimendua. Sindikatueta ordezkariek, pertsonalekoek eta enpresa-batzordekoek enpresaren informazio ekonomikoa eskuratzeko eskubidea dute.

*** 3 ARGAZKIA**

- Erreferentzia: "Langileen Estatutuaren Liburua"
- Argazki-oina: Kontrola. Langileen Estatutua enpresaren soldata-egitura ezagutzeko bitartekoetariko bat dugu.

*** 4 ARGAZKIA**

- Erreferentzia: "TC1-TC2 Inprimakiak"
- Argazki-oina: Informazioa. Zenbait dokumenturen bidez informazio ekonomiko interesgarria lor daiteke.

*** 5 ARGAZKIA**

- Erreferentzia: "Tubacex"
- Argazki-oina: Azkartasuna. Enplegu-araupeketaren espediente-egoera gertatu aurretik nahitaezko da informazio ekonomikoa eskuratzeko.

*** 6 ARGAZKIA**

- Erreferentzia: "Kioskoa".
- Argazki-oina: Jakin. Ekonomi orrialdeak eta argitalpen espezializatuak bitarteko onak dira informazio maila hobetzeko.

*** 7 ARGAZKIA**

- Erreferentzia: "Merkataritza Erregistroa"
- Argazki-oina: Merkataritza Erregistroa. Datu asko dago Merkataritza Erregistroan sartuta.

*** 8 ARGAZKIA**

- Erreferentzia: "Jabetza Erregistroa"
- Argazki-oina: Jabetza Erregistroa. Informazio ekonomikorik ematen ez duen arren, enpresaren higiezinaren egoerari buruzko datuak daude Jabetza Erregistroan.

*** 9 ARGAZKIA**

- Erreferentzia: "Gizarte Epaitegia"
- Argazki-oina: Dokumentuak. Ordainketa-etendura gertatzean, langileentzat oso interes handiko dokumentuak

aurkeztu beharra dauka enpresak epailearen
aurrean.

000000000000000000000000

